

Hitzaurrea



raingoan gure Behinolak antzerkiari ireki nahi izan dizkio bere leihoak, eta horretarako beti bezala gai horretan adituak direnengana jo dugu.

Hasteko, *Hitz eta Pitz* atalean Euskal Herriko antzerki munduan aspalditik lan egin eta egiten duten hiru andereño: AIZPEA GOENAGA, YOLANDA ARRIETA eta ENKARNI GENUA. Hauek luze bezain interesgarri den solasaldi batean arituko dira.

Segidan, MANU LOPEZEK eta XABIER ETXANIZEK Euskal-antzerkiaren historiaren islada zehatza emango digute prestatutako artikulu zinez ikusgarrian, *Hizpiden* aurkituko duguna.

Ondoren, *Hitzontzi* sailan MARIASUN LANDAK prestatutako bi testuekin gozatzeko aukera izango dugu. Lehenengoan leku berezi batera joateko gonbidapen bat proposatuko digu poesia baten bidez. Bigarreanean, bere laguna eta lankidea Asun Balzolari gorazarre egingo dio.

Gero, *Hitz besten* beti bezala liburu berrien erreseinak izango dira.

Jarraian, ENKARNI GENUAK prestatutako *Hitzatzea* etorriko da. Bertan, Enkarnik puzzle moduko zerbait osatu du, eta egia esateko ez du inor zer esanik gabe utziko, izan ere, puzzle horren zenbait pieza zirikatzaile samar baitira.

Bukatzeko, EIDER EIBARREK egindako lana goraiatu nahi dugu, izan ere, jakin badakigu bere marrazkiek gure irakurketa goxatuko dutela.

Azkenik, gure zorion beroenak MIREN AGUR MEABEri berriki lortutako Euskadi Sariagatik, bere *Urtebete itsasargian* liburuari esker –Elkar, 2006–.

